

# txintxarri



## Dantza: bizitzaren koreografia

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen iragan asteburuan, Lasarte-Orian. / 6-9

AMAIA LOPEZ

## Herri galdeketaz

Garbiñe Biurrun eta Angel Oiarbide izan ziren herritarrekin hizketan, asteazkenean / 3

**Herriko saltokien segurtasuna hobetzeko hitzaldia antolatu zuen Aterpea merkatarien elkarteak** / 5

**Benidormeko triatloian garaile atera zen Maria Mendibe sasoi onari jarraipena emanaz** / 10

**Josue Igeltseritza**

**Igeltseritza orokorra**

- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28  
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

**USURBILGO LANBIDE ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**www.ihusurbil.eus**  
**943 36 46 00**

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

**Maiatzak 6, 10 eta 13 ATE IREKIAK**

Ordutegia: maiatzak 6 eta 13 (larunbata) 11:00etan eta maiatzak 10 (asteazkena) 18:00etan

Fabrikazio mekanikoa • Elektrizitate-elektronika • Administrazioa  
Produktzio zerbitzu eta mantenimendua • Energia eta ura

**Erdi eta goi-mailako zikloak A, B eta D ereduak**



Irudi gogor bezain gordinak ikus daitezke Antonio Mercero aretoan dagoen 'Emakumea. Afganistan' erakusketan. TXINTXARRI

## Afganistango emakumearen irudiak

Astearte arratsaldean zabaldu zituen ateak 'Emakumea. Afganistan' argazki erakusketak. Afganistango emakumeen egoera isladatzen duten irudi galeria zabala ikusi ahal izango da Antonio Mercero aretoan, maiatzaren 12ra bitarte

### Txintxarri

Afganistango emakumeen egoera, irudien bitartez, Lasarte-Oriara ekarri du Euskal Fondona Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundearen elkarrekin.

'Emakumea. Afganistan' izeneko erakusketa ikusgai izango dute lasarteoriatarrek maiatzaren 12ra bitarte, Antonio Mercero aretoan.

Asteartean zabaldu zituen ateak aipatu erakusketak, eta emakumeek herrialdean bizi duten egoeraren gordintasuna suma liteke Gervasio Sánchezek eta Mónica Bernabék eginiko lanean; Afganistanen emakumeek

bizi duten errealitate gordinera hurbilduko gaitu.

Erakusketa osatzen duten argazkiek, gai ezberdinak azaleratzen dituzte: ezkontza, ihesa, heriotza irtenbide moduan, lege aurrerapenak paper bustiak, emakumeak korrontearen aurka eta zigorgabetasuna, hain zuzen. Talibanek etxetik kanpo lan egitea, ikastea zein arreta medikua jasotzea debekatu zieten emakumei, Afganistanen agintean egon zirenean.

Murrizketa horiek eskandalizatu egin zuten Mendebaldean, nahiz eta

Afganistaneko emakumeek beren etxeetan egunero bizi duten benetako dramaren icebergaren tontorra besterik ez izan.

Erakustaldi honetan ikusten da emakumeen aurkako indarkeria Afganistanen familian bertan hasten dela eta endemikoa dela, baina ez duela zerikusirik talibanak agintean egotearekin edo ez egotearekin.

### Bisitarako ordutegia

Erakusketak arratsaldeko 17:00etan zabalduko ditu ateak astelehenera, larunbatera eta iluntzeko 20:00ak bitarte izango da galeria bisitatzeko aukera.



Datorren astelehen, astearte eta asteazkenean izango dira jardunaldiak. TXINTXARRI

## Nerabezaroko arriskuak murrizteko aholku hitzaldiak

Danok Kide Guraso Elkarteak antolatuta, balioetan hezi XIV. jardunaldiak izango dira hilaren 8,9 eta 10ean

### Maddi Noriega

Nerabezaro garaian seme-alabekin sor daitezkeen arriskuak hizpide hartuta, lau hitzaldi antolatu ditu Danok Kide Guraso Elkarteak, balioetan hezi XIV. jardunaldien baitan.

Maiatzaren 8an, datorren astelehenean izango dira aipatu jardunaldietako lehen bi hitzaldiak. Lehena, eskola jazarpenaren inguruan izango da. Horretarako, Goizalde Pildain ASDEM adintxikikoen defentsarako elkarteak lehendakaria gonbidatu dute eta bera arduratuko da hitzaldia emateaz. Lehen saioa amaituta, seme-alaben parke birtualaren inguruko hitzaldia entzun ahal izango da. Honetan, Nilson Olivares analista informatikoaren azalpenak entzun ahal izango dituzte bertaratzen direnek.

Hurrengo egunean, maiatzaren 9an, internetaren, mugikorraren eta sare sozialen erabilera desegokiaren inguruko hitzaldia izango da, eta Patricia Insua psikologo klinikoa izango da kultur etxean hitzaldia ematearen arduraduna.

Laugarren eta azken hitzaldia berriz maiatzaren 10ean egingo da, eta honetan, alkoholaren eta beste droga batzuen inguruko hitzaldia eskainiko die Patricia Insua psikologoak ikus-entzuleei.

### Manuel Lekuona Kultur Etxean

Aurrez aipatu hitzaldi guztiak, Manuel Lekuona Kultur Etxean izango dira, eta ordutegi berdina izango dute denek ala denek: iluntzeko 19:30ean.

Danok Kide Guraso Elkarteak kideek herriarre jardunaldietara gerturatu daitezkeen deia luzatu nahi diete.

## Musika eta dantza ikastaroen aurrematrikulak irekiko dira datorren astean

Maiatzaren 8tik 19ra egongo da irekita Udal Musika Eskolako derrigorrezko aurrematrikula. Eskabidea egitean, kuotaren %10a ordaindu behar da

### Txintxarri

4 mailatan sailkatuko da Udal Musika Eskolako 2017-2018 kurtzoko eskaintza. Lehenengo maila lau txokotan banatzen da

(2010-2013 urte bitartean jaiotako umeak aintzat hartuta). Bigarren eta hirugarren mailatan eskainiko dira: musika hizkuntza, kontserbatoriorako sarrera frogak

prestatzeko musika hizkuntza, armonia, instrumentu taldea, kamara, abesbatza, folk taldea, akordeoia, biolina, zeharkako flauta, gitara, gitara elektrikoa, pianoa, trikitixa eta panderoa, tronpeta eta txistua. Abesbatza taldeak ere izango dira.

### DANTZA IKASTAROAK

Dantza ikastaroen aurrematrikula ere maiatzaren 8tik 19ra egin ahalgo da. Urriaren 2an hasi eta erroldatuentzat 32,30 euroko prezioa izango dute hileko dantza ikastaro bakoitzak.



Ikasleak Euskararen Maratoian emandako ekitaldian TXINTXARRI

# Biurrun eta Oiarbide herritarrekin hizketan

Igandeko herri galdeketari begira, 'Zein da erabakitzeko eskubidearen gainean duzun iritzia?' hitzaldia antolatu zuen Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok. Bertan, bi gonbidatuen iritzia entzun ahal izan zituzten Villa Mirentxura gerturatu zirenek

## Txintxarri

Igandean Lasarte-Orian egingo den herri-galdeketa harira, hitzaldia antolatu zuen herriko Gure Esku Dago herri ekimenak, asteazkenean, Villa Mirentxun.

Iluntzeko 20:00etan izan zen hitzordua, eta ordurako, herritarrez beterik zegoen aipatu lekuko hitzaldi aretoa; zai ziren guztiak Garbiñe Biurrun epailearen eta Angel Oiarbide Gure Esku Dago ekimeneko bozeramailearen hitzaldia entzuteko prest.

Bi gonbidatuek herri ekimenak aurrera eramandako herri galdeketa partu hartu dute dagoeneko, Tolosan eta



Herritarrek bi gonbidatuen iritzia entzun ahal izan zituzten. TXINTXARRI

Idiazabalena, hain zuzen eta prozesuaren inguruko zenbait iritzi partekatu nahi izan zituzten bertan bildutako ikusentzuleekin.

Hitzaldiaren hasieran Maider Seguroa aurkezleak aipatu

moduan, emozioetatik abiatu nahi izan zuten, eta horretarako, bertaratutakoei papertxo batzuetan igandeko herri galdeketa begira sentitzen dituzten emozioak idazteko eskatu zieten.



NEURE KABUZ

MAIDER SEGUOLA

## Azken metroak

Oraintxe dira hamar urte Haruki Murakamik «Zertaz ari naizen korrika egiteaz hitz egiten dudanean» lana argitaratu zuenetik.

Sekula korrika egin gabekoa izatetik, egunean 60 zigarro erretzetik, bizitza erabat sedentarioa izatetik, maratoietan parte hartzea pasa zen idazle japoniarra eta bide horretan bizi izandakoak bildu zituen liburuan.

Ez naiz kirolaria, ez dut inoiz maratoirik egin,... baina liburua irakurrita, azken hilabeteetan herriko hainbat lagunak urratu dugun bidea lasterketa batekin parekatzeko modukoa iruditzen zait. Aurretik ere korrika ari zen jende bati batu gintzaion koadrila bat irailan eta maiatzaren 7an izan dugu geroztik begirada jarrita. Epe luzeko proiektuetarako erritmoa markatzearen garrantzia azpimarratzen zuen Murakamik bere liburuan eta gure kasuan ilusioa izan da erritmo horri eutsi dion motorra.

Eta azkenean hortxe dago helmuga. Begien bistan dugu maiatzaren 7a. Igandean herri galdeketa egingo dugu Lasarte-Orian eta gure iritzia emateko aukera izango dugu. Maratoiarene gogorra behin hogeita hamabosgarren kilometroa pasatakoan datorrela zehaztu zuen Murakamik baina herri galdeketa bi egunen faltan, hori ere gainditu dugu. Eta azken hilabeteetan igande hau heltzeko gogoz izan garen arren, aurririk dezaket maratoia amaitutakoan Murakamik sentitu zuen poz bera izango dugula barruan.

Poza, neke pixka bat ere bai, baina batez ere abiatu berri dugun bide honetan aurrera egiteko indarra.

# IGANDEAN, HERRI GALDEKETA PARTE HARTU, ERABAKI!

1) Erabakitzeko dagokizun eskubidea erabili nahi duzu interes publikoko gaietarako?

Bai  Ez

2) Zure erantzuna baiezkoa bada, izan nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra?

Bai  Ez



*Eta etorri Okendora egun osoko festara!*

## Bozkalekuak



### ZABALETA

Larrekoetxe bidea 13,  
Antonio Blas plaza,  
"Zabaleta Auzo Elkarte"



### ORIA

Zirkuito ibilbidea 15,  
"Denda Berri"



### MICHELIN

Geltoki kalea 25  
"Ostadar"



### ERDIGUNEA

Nagusia kalea 10  
"Arrieskalleta Elkarte"



### SASOETA

Andatza plaza 4,  
"Muebles Azpeitia"



### ZUMABURU

Erribera kalea 10,  
"Lasartearra Elkarte"

# Atsobakarreko pergola estaliko dute

"Aurrekontuei begira egindako parte-hartze prozesuaren ondoren" estaltzea erabakitako guneetako bat da Atsobakarreko jolas-parkean kokatuta dagoen pergola. Obrak ekainean hasiko dira eta hiru edo lau hilabete iraungo dute

## Txintxarri

Alkate Jesus Zaballosek azaldu duenez, Lasarte-Oriako zenbait espazio publiko estaltzeko "hiritarren eskaera" dago. Bide horretan aurkeztu zuen ostegunean hirigintza zinegotzi Agustin Valdiviarekin batera Atsobakar auzoan egingo duten proiektu berria.

Jolas parkearen ondoko pergola estaliko dute, 200 metro karratu baino gehiagoko espazioa prestatuz. Nabarmendu dutenez, "haurrentzako eta euren zaintzaileentzako pentsatuta" dagoen neurria da. Izan ere, euria edo haizea egiten duen egunetan, bertan jolastu ahal izango da eta zaintzaz arduratzen diren pertsonak ere "leku duina" edukiko dute atsedenerako.

Valdiviak azpimarratu du haurrek "denbora gehiago" ematen dutela jolasean, haiekin dauden pertsonak gustura badaude. Ondorioz, bere ustez, "arrakasta handiena duten jolas-



Alkate Jesus Zaballosek eta zinegotzi Agustin Valdiviak aurkeztu zuten. TXINTXARRI

parkeak atsedenerako gune estali egokia dutenak izan ohi dira". Pergola berriaren ondoan, halaber, kirola egiteko gunea dago. Beraz, ume eta zaintzaile hasko biltzen da bertan.

## Pilareak baliatuz

Orain arte Atsobakarreko parkean zegoen pergola ez dute goitik behera aldatuko. Azaldu dutenez, "estruktura eta materialei probetxua atera" ahal izango diete.

Pilareak baliatuko ditu gune berriak, eta goitik eta iparreko aldetik estaltzeko asmoa dute. Orain arte pergolaren sabaia osatu duten egurrezko xaflak berrerabiltzeko asmoa ere adierazi dute Udal ordezkariak.

"Egurra lixatu eta bernizatuko dugu, ondoren gune altzariak egin ahal izateko", azaldu du Valdiviak.

Aurretik pergola bertan egoteak ahalbidetuko du, alkatearen eta zinegotziaren esanetan, "proiektua aurrekontu humilarekin" aurrera eraman ahal izatea. Guztira, 108.000 mila euroko kostua izango du obrak eta, azaldu dutenez, "udazkenerako" amaitua egotea espero dute. Dagoeneko esleituta dago, eta ekaina aldera hasiko dituzte lanak. Hala ere, nabarmendu dute "suertatu daitezkeen balizko arazoek atzera ditzaketela".

## Erabilera anitza

Jolas-parkearen parean kokaturik egonik, argi dago gune estaliak beteko duen helburu nagusia jolasteko eta haur eta nagusientzako atsedene guneak ezartzea dela. Dena den, Udal ordezkariak "auzoaren dinamizaziorako" izan dezakeen garrantzia nabarmendu dute.

Gune estaliak "ospakizunetarako proposak" dira haien ustez, eta Atsobakar auzoan egiten direnak, hemendik aurrera, bertan egin ahal izango dira.

Semblante Andaluz elkarteak urtero antolatzen duen erromeria edota Eneko Castroren omenezko krossa aipatu dituzte, besteak beste.

Elektrizitatearentzako sarrera ere edukiko du guneak. Hortaz, mota askotako ekitaldiak egiteko aukera egongo da udazkenetik aurrera.

## Beste proiektuak

"Aurrekontuei begira zabalduko parte-hartze prozesuen ondorioz" zenbait gune estaltzeko erabakia hartu du Udal Gobernuak. Horietako lehena da Atsobakarrekoa, baina ez bakarria.

Oztaranen, errepidearen azpian, industrialderainoko gunea baliatzeko asmoa dute, esaterako. Kasu honetan, "kontrako prozesua" egingo dute. Jadanik estalia dagoen gunea jolaserako prestatuko dute.

Askatasunaren parkeko eta Landaberri 1. eta 2. DBHko eraikineko jolastokiko estaltzeak etorriko dira, ondoren. Denen "erabilera anitza" azpimarratu dute.

Horiek denak 2017an egiteko asmoa azaldu dute, "herriarrek hala eskatu" dutelako.

## ORAIN ARTEKO ESTRUKTURA BALIATUKO DUTE ESTALITAKO GUNE BERRIA ERAIKITZEKO

## San Pedro jaiak iragartzeko lanak aukeratzeko unea

Guztira, 19 lan aurkeztu dira aurtengo San Pedro jaiak iragartzeko egindako kartel lehiaketara

### Maddi Noriega

Amaitu da 2017. urteko San Pedro jaiak iragartzeko kartel lehiaketan lanak aurkezteko epea, eta abiatu da, berriz, aurkeztutako lanak aukeratzeko tarte.

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duen moduan, 19 lan ezberdin aurkeztu dira aurtengo lehiaketara, eta horien inguruko herritarren iritzia jakin nahi dute orain.

Horretarako, epe bat zabaldu da jada, eta maiatzaren 20ra bitarte izango dute



19 lan aurkeztu dira aurtengo. TXINTXARRI

lasarteoriarrek aurkeztutako lanen inguruko balorazioak emateko aukera. Behin-betiko erabakia Gazteria eta Festak batzordeak hartuko badu ere, herritarrek emandako bozka guztiak kontuan hartuko direla gehitu du udalak.

Aurkeztutako 19 kartelak, lasarteoriararen.eus web-tarian ikus ditzake interesa duenak, eta horien inguruko iritzia eman ahal izateko, berriz, [sanpedrojaiak@lasarteoriararen.eus](mailto:sanpedrojaiak@lasarteoriararen.eus) helbidea jarri du udalak herritarrek eskura. Horrela, kartelen inguruko iritzia bidal daitezke posta-elektroniko baten bidez, aipatu helbide horretara.

Behin maiatzaren 20a pasata, jakitera emango du Lasarte-Oriako Udalak aurtengo festetako kartel iragarlea.

## Sasoeta-Zumaburuko haurrek dituzten gabeziak, Arartekoari

Sasoeta-Zumaburu eskolako obrak direla eta, Udal Euskaltegiko eraikinean daude ikasleak

### Maddi Noriega

Zumaburu eskolako obrak direla eta, istiluka dabilta Burunzpe Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkarteko kideak.

Udal Euskaltegiko eraikinean daude orain aipatu eskolako ikasleak, eta bertan bizi duten egoeraren berri eman asmoz eta dituzten gabeziak jakinarazteko asmoz, Arartekoari aurkezteko gabezien-txosten bat prestatu du Burunzpe Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkartek.

Beste zenbait gairen artean, honen berri emateko asmoz egin

zuten astearte arratsaldean ezohiko batzarra Sasoeta ikastetxeko liburutegian.

### Gabezien txostena

Ikasleek egun bizi dituzten askotariko gabeziak aurkeztu zituzten asteartean. Horien artean, adibidez, ikasleak biltzen diren gelek, nahiko espaziorik ez dutela azaldu zuten. Honekin batera, psikomotrizitate gelarik ez dutela ere jakinarazi zuten eta beste hainbat gabezia gehiagoren artean, soinu eta tenperatura altuko gelatan daudela jakinarazi zuten.



Kontuan izan beharreko puntu garrantzitsuenak azpimarratu ziren hitzaldi amaieran TXINTXARRI

# Saltokietan segurtasuna hobetzeko hitzaldia

Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan segurtasuna hobetzeko eta lapurretak ekiditeko gomendioak eman zituen asteazkenean Ertzaintzak

## Lorena Lujanbio

Azken aldian Lasarte-Oriako saltokietan izandako lapurretak direla eta, Ertzaintzak eta Aterpeak, merkataritza eta zerbitzu elkarteak, hitzaldi bat antolatu zuten komertziantek segurtasunaren inguruan aholkatzeko.

Mintzaldian segurtasun-neurri orokorrak eta pertsonalak landu ziren. Alarma edukitzeaz gain, merkatariek pertsonalki kontuan hartu behar dituzten aholkuak aipatu ziren; besteak beste, bankuko diru sarrerak egiterakoan errutina saihestea, norbaitek lagunduta joatea, edo inori horren berri ez ematea. Lokalean bertan hartu beharreko

neurrien artean, irekierak eta itxierak aipatu zituzten momentu kritikotzat, eta norbaitek lagunduta egitea gomendatu zuten ahal izan ezker. Bakarrik edo norbaitekin, itxieran komunak, aldagelak, edo trastelekuak bezalako gelak hutsik daudela ziurtatu behar da. Horrekin batera, ate inguruan dagoen jendean arreta jartzea garrantzitsua dela esan zuten, eta edozein susmoren aurrean, txikia bada ere, Ertzaintzari deitzea.

Alarma enpresen inguruan ere aritu ziren; kontratatutako zerbitzua zehazki zein den ulertzea eta, behar izan ezker, hobetzea gomendatu zuten, baita

legez derrigorrezkoa den, urteko azterketa egitera datozela ziurtatzea. Edozein kasutan, lapurreta bat egon dela sumatzean, lehenbiziko pausoa Ertzaintzara deitzea izango da, ezer ukitu edo lokal barrura sartu baino lehen.

Hitzaldian Lasarte-Oriako komertzianteen parte-hartzea eskatu zen, eta hauen galderen bitartez bideratu zen eztabaida. Hizlarien diskurtsoan, komertzianteen eta Ertzaintzaren lankidetzaren garrantzia izan zen aipamen nagusia, jaso daitekeen informazioarekin egindako lehen ikerketa prozesuak baitira lapurretak ekiditeko metodo egokiena.

## Psikologia eta idazkera tailer berriak Emakumearen Zentroan

Astean bi tailer berri egiteko aukera egongo da Lasarte-Oriako Emakumearen Zentro Zibikoan

### Txintxarri

Psikologia eta sormenezko idazkera landuko dituzte astean behin Emakumearen Zentroan; biak ala biak, genero ikuspegitik.

Atzo hasi zen "Sormenezko idazkera genero ikuspegitik" izenekoa. Maiatzean, ostegunero emango dute, 16:00tatik 17:30etara. "Idazteko joku eta modu ezberdinak" landuko dituzte, sortzeko garaian "erraztasunak" eskuratzeko helburuarekin.

"Egunerokotasuneko psikologia" landuko dute, bestetik, asteartetan, hilaren 9an hasita. Antolatzaileek

azaldu dutenez, "hobeto bizitzeko" pentsatuta dago tailer hau. Egunerokotasunean topatzen ditugun "oztopo, zailtasun, desegonkortasun eta pentsamendu okerren aurrean" erabili daitezkeen tresnak eta teknikak landuko dituzte.

Bi tailerretarako izen ematea doakoa izango da, baina azaldu dutenez, komeni da alde zuretik egitea.

943 36 39 58 telefonora deituta edo [lasarteasexoria@lasarte-oria.eus](mailto:lasarteasexoria@lasarte-oria.eus) helbide elektronikora idatzi beharko dute interesatuek.



TXINTXARRI

## EH Bildu burujabetzaren alde

"Ongizatea eta etorkizuna bermatzeko bide bakarra Euskal Estatu burujabe baten parte" izatea dela nabarmendu dute koalizioko kideek. Horregatik, igandearen Loratu taldeak Gure Esku Dago herri ekimenaren barnean antolatutako galdeketa parte hartzera deitu ditu Lasarte-Oriako herritarrak.

# MAiTE

**ESTETIKA ARETOA**  
Ordu-tegi malgua daukagu  
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
Tel. 943 37 08 45

*Merezi duelako, oparitu kapritxo bat amatxori!*

Gure tratamendu eta zerbitzuak opari-txartel moduan oparitu ditzakezu!  
*Keinu txikiak bizitzera alaitzen dutelako*

## ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

# Dantza: mugarik gabeko lengoaia

Urtero legez, ederki ospatu du Dantzaren Nazioarteko Eguna Kukuka eskolak, Udalarekin elkarlanean antolatutako ekitaldian. Arantza Iglesias, Myriam Perez eta Sergio Nguema dantzarien koreografiekin gozatu zuten herritarrek larunbatean.

## Iñigo Gonzalez

Berriki zendutako dantzari, koreografo eta zuzendari artistiko Trisha Brownek argi zioen joan den larunbateko egunaren harira idatzitako manifestuan: "Dantza jendeak egiten du; jendeak, eta ideiek. Publikoak etxera eraman dezake sormen bultzada hori eta euren eguneroko bizitzan praktikara eraman". Apirilaren 29 eguerdian Villa Mirentxura hurbildu ziren lasarteoriatarrek dosi ederra eraman zuten bueltan etxera, dantzan nekatu gabe aritu ziren Arantza Iglesias, Myriam Perez eta Sergio Nguema artistei esker.

Dantzaren Nazioarteko Eguna izaki, ospatzeko ekitaldia antolatu zuen Kukuka eskolak, Udalarekin elkarlanean. Mainer Oiarzabal Kukukako kideak zehaztu zuenez, "kontzientziaz" pentsatu dute antolatzaileek aurtengo ospakizun ekitaldira zein gonbidatu: "Profesionalki aritzen dira dantza munduan hiruak, eta Euskal Herrikoak dira gainera".

Aipatutako hiru artistek ordu laurden inguruz dantzatu zuten Villa Mirentxuko oholta

inprobisatuan, hainbat herritar begira zituztela. Ondoren, Miren Zalduak Trisha Brownek idatzitako manifestua irakurri zuen euskaraz zein gazteleraz. Amaitzeko, hiru gonbidatuekin solastu ziren herritarrek, eta mokadutxo bat jan etxera bueltatu aurretik.

## "Dantzak ez dauka mugarik"

Tartekirako hautatu esaldi hau izan zen solasaldiko lezio aberasgarrietako bat, baina ez bakarria. Hiru dantzariak gogoeta oso mamitsuak plazaratu zituzten, mikrofonoa eskuetan.

"Ideia zehatz bat neukan: pertsona bat galtzen denean, bideak bilatzen ditu, burua zein gorputzaren bidez. Bakoitzak zerbait desberdina esaten du, eta, nire ustez, bakoitzean badaude halako erresistentziak eta bultzadak", nabarmendu zuen Arantza Iglesiasek. Ildo beretik jo zuen Perezek: "Pertsona bat galduta dagoenean, segurtasun edo konfort egoera batetik atera eta parentesi horretan egon bitartean sentitzen diren bertigo eta antsietateak islatu nahi izan

ditu". Nguemak, berriz, honakoa plazaratu zuen: "Teknika ikaragarri garrantzitsua da, jakina, baina dantzariak barruan ez badauka zer espresatu, herren geratzen da, hutsik".

Plazara atera den beste galderetako bat izan da ea dantza pertsona guztientzat ote den, eta mugarik badaukan edo ez. Arantza Iglesiasek argi eta garbi adierazi du bere ustea: "Dantza jaiotzen garenetik daukagun beste lengoaia bat da, batzuk garatzen dugu eta beste batzuk ez. Guztiena da, eta ez dauka inongo mugarik".

Dantzak Euskal Herrian bizi duen egoeraz ere hausnartu zuten. "Nik uste dut mugimendu asko dagoela, indartsu datozela belaunaldi berriak, batez ere dantzari eta sortzaile aldetik. Merkatua...zaila. Asko borrokatu behar izaten dugu oraindik", adierazi zuen Perezek. "Espainiar estatuan hemen baino okerragoa da egoera. Hori bai, Frantzia edo Alemanian hemen baino aukera askoz gehiago eduki ohi dituzte dantzariak", azpimarratu zuen Nguemak.



Sergio Nguema, emanaldi betean. TXINTXARRI



Esker-eskuin: Sergio Nguema, Arantza Iglesias eta Myriam Perez. TXINTXARRI



Herritar ugari gerturatu ziren Villa Mirentxura, hiru artisten emanaldiez gozatzen. TXINTXARRI



Dantza garaikide eta afrikar jatorrikoekin aritzen da Arantza Iglesias. TXINTXARRI

# Azkorteko Erronomia

2017ko maiatzaren 7an



11:00: Meza Azkorteko ermitan  
12:00etatik aurrera: Herri-kirolak  
Ttiriki-Ttarraka taldeak girotutako erronomia



Aurten ere autobus zerbitzua doan  
\*Goizeko 9:00etatik aurrera, erretiratu elkartetik  
(Kale Nagusia 40) ermitara.

\*\*Ezin izango da kotxez ermitara igo, bidea itxita egongo da.



## UDABERRIKO BERTSO SAIOA 2017

Maiatzaren 6an 22.30ean - Manuel Lekuona Kultur Etxean

### Bakarrizketan

Intza Alkain

### Bertsotan

Maialen Lujanbio  
Ane Labaka  
Andoni Egaña

### Trikitilariak

Aitor Lasa eta Dani Narbarte  
Peio Aiestaran, Goiatz Aiestaran eta Iñigo Azkue  
Urtzi Agirretxe  
Joseba Tapia  
Ttiriki Ttarraka

### Dantzariak

Alazne Ramos eta Uxue Odriozola  
Erketz  
Kukuka  
Maider Oiartzabal eta Ibai Fresnedo

Sarrerak: 5,50€.  
10 sarrerako bonoa 45€  
(taldean erabili daiteke).





Txikitatik aritu da dantzan Amaia Lopez. 18 urterekin Madrileran joan zen eta egun Alemanian bizi da. AMAIA LOPEZ

# "Dantza arimaren medizina dela esango nuke"

**AMAIA LOPEZ ZURUTUZA** BALLET DANTZARIA ETA DANTZA IRAKASLEA

Txikitari eman zituen lehen dantza pausuak, Lasarte-Orian, Amaia Lopez dantzariak. 18 urterekin, Madrileran joan zen dantzarekin jarraitzeko asmoz, eta Alemanian bizi da egun

## Maddi Noriega

Gaztetxotatik sentitu zuen Amaia Lopez Zurutuzak (Lasarte-Oria, 1984) balleta dantzatzeko grina. Adin nagusitasuna betetzearekin batera, Madrileran joan zen dantzarekin jarraitzeko gogoz, eta egun, Alemanian bizi da; goi errendimenduko dantza eskola bateko irakasle da bertan.

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen iragan asteburuan, herrian eta dantzaren inguruan galdetu nahi izan dio TXINTXARRIK, Lopezi.

**Gaztetxotan, Lasarte-Orian bertan abiatu zenuen zure dantzari ibilbidea?** Txikia nintzenean, euskal dantza gain, ez zegoen beste diziplinarik ikasteko aukerarik, Lasarte-Orian, eta nik, balleta egin nahi nuen.

Amak jakin zuen orduan, herriko bi neska Donostiako eskola batera joaten zirela balleta ikastera. Horrela, haiekin

harremanetan jarri eta 5 urte nituela hasi nintzen balleta ikasten, Donostian.

**Zein dantza estilorekin eman zenituen zure lehen dantzari urratsak?**

Dantza klasikoarekin hasi nintzen. 'Royal Academy of London'-eko eskola sistema jarraitzen genuen, eta 2 urtetik behin, Londresetik etortzen ziren bertan ikasten ari ginenoi frogak egitera; horiek gairitu ezker, diploma jasotzen genuen.

Hasieran, dantza klasikoak bakarrik lantzen genuen, baina denbora gutxira karakterreko dantzak (ekialdeko herrien

**"NIRETZAT DANTZA, DENA DA. EZ DUT NIRE BIZITZA DANTZARIK GABE IMAJINATZEN"**

folklore) ikasten hasi nintzen; azterketaren parte ziren.

Guzti honen aurretik, ikastolan, 5 edo 6 urte nituela, euskal dantzak ikasten aritu nintzen urtebetez, baina ez nuen oso gustoko izan eta utzi egin nuen.

**Txiki-txikitatik sentitu zenuen orduan dantzan aritzeko gogo?**

Amak kontatzen didanez 3 urte nituela ikusi nuen, lehen aldiz, ballet-klasikoa telebistan. Liluratuta geratu omen nintzen eta amari, handitan telebistako dantzaria bezalakoa izango nintzela esan omen nion. Amak esandakoaren arabera, balleta ikasi nahi nuela etenik gabe, esan eta esan aritu omen nintzen, dantza hori ikasi nezakeen lekua aurkitu zuten arte.

Amak uste zuen pasako zitzaidalda, ume kontuak zirela, baina ez, oso kaskagorra nintzen eta oso ziur nengoen zer nahi

nuen bizitzan. Egia esan nahi hori ez zitzaidan inoiz desagertu; argi izan dut beti balleta dantzatu nahi nuela.

**Zer da zuretzat dantza?**

Zer den niretzat dantza? Uf, zaila da niretzat galdera horri erantzuna ematea. Hitz bakarrean adierazi beharko banu, niretzat dantza dena dela esango nuke.

Dantza gauza asko dira batera, baina batez ere, bizimodu bat, adierazteko bide bat eta sentitzeko modu bat; ez dut nire bizitza dantzarik gabe imajinatzen.

Honaino iristeko bidea oso zaila izan da noski, momentu txar ugari pasa ditut, baina ez naiz damutzen; behin eta berriro egingo nuke. Dantza egitean sentitzen dudana ez dut, bizitzan, beste ezerekin sentitu. Sentsazio oso berezia da, oso zaila hitzez adierazten, bizitu beharra dago zer den jakiteko.

**Lasarte-Oriatik Alemaniara joan zinen bizitzera eta bertan bizi zara orain. Zenbat urte daramatzazu han? Dantzagatik joan zinen hara?**

Bai, Berlinen bizi naiz orain. 4 urte beteko ditut udan, bertan bizi naizela, eta aurretik, 2 urte

pasa nituen Chemnitz-en, bertako dantza konpainia batean.

2011ean audizioa egitera etorri nintzen Chemnitz-era eta kontratua eskeini zidaten; orduaz geroztik Alemanian bizi naiz. 2 urte haietan Chemnitz-eko dantza konpainia batean dantzan aritu ostean, zuzendari aldaketa gertatu zen, eta zetorren berriarekin ez nuen lan egin nahi; ez nuen bere lana gustoko, eta nere bikotekidearekin batera, Berlinera etortzea erabaki genuen freelance dantzari moduan lan egiteko.

Horrela, urtebete igaro nuen freelance gisa dantzaren munduan, lanean, Berlineko Deutsche Oper-eko produkzio ezberdinetan, eta beste konpaini bateko dantza proiektu batean ere.

Horrekin batera, Audizio gehiago ere egin nituen, baina ez nuen lortu beste konpainia batera sartzea, eta freelance bezala bizitzea zaila denez, utzi egin behar izan nuen.

**Eta gaur egun, dantzaz bizi zara bertan?**

Bai. Erabaki haren ostean, dantza klaseak ematen hasi





Freelance moduan hainbat urte dantzari gisa aritu ostean, egun, goi errendimendu gimnasia erritmikoko zentru batean dabil irakasle talde bat. AMAIA LOPEZ

nintzen errendimendu altuko gimnasia erritmikoko zentru batean, eta gaur egun ere beraiekin ari naiz lanean. Uda honetan 2 urte beteko dira irakasle lanetan hasi nintzenetik.

**Eta zein da zehazki zure lana bertan?** Beraien balleteko irakaslea naiz, baina koreografiak ere egiten ditut, izan ere, batzuetan ikuskizunak egiten dituzte, eta horiek prestatzen aritzen naiz.

Hontaz gain, gimnasiako entrenatzaile lizentzia ateratu dut. Kiroleko eskola berezi batetara joaten dira, non kirol ezberdinak eskolarekin batera egiten diren.

**Zaila al da Euskal Herrian dantzaz bizitzea?**

Ba egia esan ez dakit egoera nola dagoen momentu honetan, baina pentsatzen dut ez dela gehiegi aldatu izan ni joan nintzenetik.

Nire garaian ez zegoen aukera gehiegirik. Ikasteko kanpora joan behar zen, maila altua lortu nahi bazen behintzat.

Orain badakit Dantzaz Gazte dantza taldea dagoela, hasteko behintzat bada zerbaiz, baina

hortaz gain, konpaini txiki batzuk egon badauden arren, ez da nahikoa hainbeste dantzarirentzako. Agian, irakasle moduan, klaseak emanaz aukera gehiago egon litezke, baina ez nago ziur.

**Zein onura ditu dantzan aritzeak gizakiarentzako?**

Dantza arimaren medizina dela esango nuke; gure baitan dago.

Gizakiak betidanik egin du dantza, herrialde guztietan. Mundu osoan dantza kulturaren eta gizakiaren parte da, tribu primitiboetan ere dantza gizakien bizitzaren zati garrantzitsu bat da, festak, erritualak...dantzarekin eta musikarekin ospatzen dira.

Dantzak ondo sentiarazten zaitu,endorfinak botatzen ditu gorputzak eta ariketa bikaina da. Mundu guztiari gomendatuko nioke egunero dantza piska bat egitera, etxean bertan, gustoko musikarekin, alaitu egiten baitu.

Agian dantzari bezela pentsatzen dudalako ari naiz erreflexio hauek egiten, baina benetan ala dela pentsatzen dut.

**Zein ezaugarri behar ditu izan dantzariak?**

Gogoia, indarra, pazientzia izan behar du dantzariak eta langilea izatea ere beharrezkoa da.

Gorpuzkera ere garrantzitsua da, noski. Gorputz osasuntsu bat beharrezkoa da, kirol guztietan bezala.

Dantza estiloaren arabera ezaugarri ezberdinak behar ditu izan dantzariak.

Klasikoan eta neo klasikoan argalagoak nahi izaten dituzte, estetika kontu bat izatez gain, dantza-bikoteak airean errazago altxa ahal izateko. Hortaz gain, beso eta hanka luzeak eta elastizitatea ere kontuan hartzen diren ezaugarrietako batzuk dira.

Garaikidean, berriz, gorputz ezaugarriei dagokienean, irekiagoa da. Gorpuzkera mota gehiago onartzen dira, ezaugarri horiek baino gehiago, beste batzuk baitira garrantzitsuagoak: mugimendua, lurreko lana eta akrobaziak, besteak beste.

Azkenik dantzarako oso garrantzitsua den beste ezaugarri bat ere badago: adierazpena. Ez dugu ahaztu behar zerbaiz

adierazteko dantzatzen dela, ez oinak edo gorputz polit bat erakusteko, ezta teknika ona erakusteko ere. Ikusleentzako dantzatzen da, zerbaiz adierazteko eta sentiarazteko. Izan dantza estilo bat edo beste, jendearen sentipenak mugiarazteko helburuarekin egiten da dantza; garrantzitsua da mezua transmititzea da.

**Ba al duzu bereziki gogoan gordetzen duzun emanaldirik?**

Bai, emanaldi bakarra, baina bereziena niretzat, Chemnitz-en dantzatu genuen koreografi bat izan da. 'Netherlands dans Theater' konpainia ospetsuko dantzari bat etorri zen koreografia egitera. Asko disfrutatu nuen berarekin lan egin genuen hartan.

Egunero energiak beteta etortzen zen eta asko ikasi genuen berarekin; ez teknikoki

**"MUNDU GUZTIARI GOMENDATUKO NIOKE EGUNERO DANTZA PIXKA BAT EGITERA"**

bakarrik, baizik eta bere koreografiaren bitartez adierazi nahi zuen guztia gure barrutik nola aterarazi zigun ere ikaskuntza izan zen guretzat. Oso esperientzi ederra izan zen, eta asko disfrutatu nuen dantzan.

**Zein dantza estilo duzu gustuko?** Neo klasiko eta garaikidea baino fisiko denean.

Dantza oso garaikidea denean eta antzerkiarekin nahastuta doanean, ez dut gustoko; dantza egon behar du, mugimendua, zentzuarekin, esan-nahiarekin.

Fisiko behar du izan dantzak, ez kontzeptual modernoa ez da nerretzat.

Dantza gustatzen zait, estilo ezberdinak gustatzen zaizkit, baina mugimendua egon behar da.

**Zure dantzari ibilbidean, izan al duzu inoiz erreferentziako dantzaririk?**

Egia esan ez. Dantzari on asko izan dira eta horietatik izan ditut gustokoak, adibidez, Sylvie Guillem. Oso oso dantzari ona izan da, eta 50 urterekin amaitu zuen bere dantzari ibilbidea. Klasikoarekin hasi eta garaikidearekin bukatu zuen. Hainbeste urte dantzan aritzea meritu handia da.

# "Pozik eta harro nago aurtengo emaitzekin"

**MARIA MENDIBE TRIATLOILARIA**

Egindako hiru frogetatik bi irabazi ditu aurtengo Maria Mendibek. Sopelako duatloia batetik, eta Benidormeko triatloia bestetik. Denboraldia indartsu amaitu nahi du

## Martin Vicioso

Duela bost urte hasi zen Maria Mendibe triatloietan parte hartzen. Zarauzkoa ikustera joan, eta frogak txunditu zuen lasarteoriatarra. Ordutik, makina batean hartu du parte eta batzuk irabazteko aukera ere izan du. Sopelako duatloiean onena izan zen urte hasieran eta duela bi aste Benidormekoa irabazi zuen. Harekin izan gara denboraldiaren orain arteko balorazioa egiteko eta datozen erronken inguruan solasteko.

## Benidormen irabazi berri duzu. Nola joan zen froga?

Oro har hartuta, nahiko ondo. Arazo mekanikoak direla medio, bizikletako katea atera zitzaidan eta lurrera jausi nintzen. Denbora pixka bat galdu nuen hor, izan ere, lasterketa burua harrapatzean negeen erori nintzenez.

## Triatloia zirkuitotan banatuta egoteak lagundu zintuen?

Atzetik aurrerako lana egiteko, bai. Bizikletan egin beharrekoa zazpi bueltako zirkuitoa zenez, kontrolatzeko erraztasunak eman zizkidan. Erori arren, lasterketaburua non zen kalkulatu



Bizikletan moldatzen da hobekien Mendibe. MARI MAR CAMPO

ahal izan nuen. Azkenik, korrika egiteko tartean harrapatu nuen. Lau buelta eman behar genizkion ibilbide bati, eta ondo neurtu nuen bien arteko aldea.

## Aurtengo egindako hiru frogetatik bi irabazi dituzu, beraz.

Oso pozik nago egindakoarekin, egia esan. Baita harrituta ere. Egia da Sopelan topera nengoela,

baina bertan irabazi eta bi astetara, bost astetarako gelditu behar izan nintzen lesioak direla medio. Adinak ere ez du barkatzen, eta gorputzak gehiagotan eskatzen dit atseden hartzeko.

## Datozen hilabetetara begira, ze erronka dituzu?

Aste honetan Debako triatloiean hartuko dut parte, oso gustuko

dudan froga batean. Bizikletarekin egin beharreko zatia gogorra da, eta hori ondo datorkit niri. Helburu nagusi bezala, ordea, Zarauzkoa dut, ekainaren 10ean egiten dena. Hura ikustera joan nintzelako hasi nintzen ni kirol honetan, eta horregatik berezia da niretzat. Udararen alabak oporrak hartzen dituzenez, kompetiziorako tarte txikiagoa dut. Forma mantentzen saiatzen naiz, ezin baitiot entrenatzeari utzi. Aurtengo, Bilboko (maiazak 20) eta nire amaren Valladolideko herriko duatloia (Villabañez, hilaren 27an) ere egingo ditut. Gerora, gorputza nola daukadan ikusi beharko dut, eta aukera suertatuko balitz, momentuan erabakiko nuke.

## Noiz hasi zinen triatloietan lehiatzen?

2011n. Zarauzko triatloia ikustera joan nintzen, eta kirolak liluratu ninduen. Korrika aritzen nintzen ni eta orduantxe hartu nuen bizikletan eta igerian egiteko erabakia. Batez ere, hurrengo urteko edizioan parte hartu ahal izateko. Hortik aurrera ez naiz gelditu, eta badira bost urte hasi nintzenetik.

## Aurretik ze kirol egiten zenituen?

Gaztetan saskibaloian jokatu nuen, eta lehenengo mailan urtebete egitera ere iritsi nintzen CBN taldearekin, Iruñean. Lanean hasi ondoren, korrika egiten hasi nintzen, denbora gutxiago nuelako. Behobia-Donostia lasterketa prestatzeko hasi nintzen lasterka, eta hala ibili naiz triatloia ezagutu dudana arte.

## Aipatu duzu igerian ibiltzen zarela makalen. Non zaude erosoan?

Bizikletan. Egia da korrika betidanik egin dudala, baina ez dakit zergatik, txirrindarekin hasi nintzenetik oso indartsu ikusi naiz. Orain arteko triatloietan, bi gorpulen gainean aritu naiz hobekien.

## Desberdin prestatzen dituzu hiru modalitateak?

Egia da bizikletan entrenatzeko denbora gehiago behar duzula, bi edo hiru ordu gehienez. Korrika ordubeterekin nahikoa izaten da. Igeri, bestalde, Buruntzaldea IKT taldearekin entrenatzen dut astean hirutan.

## Jarraibide zorrotzak dituzu entrenamendurako?

BPX taldearekin hasi nintzenetik prestatzaile fisiko baten laguntza dut. Elikadura zaintzeko ere dietista batengana jo dut. Emaitza hobekien eduki ditut ordutik.

## Egindako zein froga gogoratzen duzu bereziki?

Lehenengoa, adibidez. Zarautzen atera nintzen eta itsasoko eremua egiteko ordubeteko tarte ematen dute. Beranduago iritsiz gero, kanporatzen zaituzte. Ez nintzen ondo moldatzen igerian, eta oso urduri negeen hasi aurretik. Justu gaingitu nuen eta amaitzean, nire familia osoa zegoen helmugan eta oso momento hunkigarria izan zen.

## "ZARAUZKO TRIATLOIA BEREZIA DA NIRETZAT. HURA EGITEKO HASI NINTZEN HONETAN"

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### SASKIBALOIA

ERRENDIMENDUKO JUNIORRAK

#### Ostadar SKT - TAKE

Ostirala. 20:30. M.Chourraut kiroldegia.

#### TAKE - Ostadar SKT

Igandea. 10:30. Usabal kiroldegia.

ERRENDIMENDUKO JUNIORRAK, LAUKO FINALA

#### Easo - Ostadar SKT

Larunbata. 18:00. Gasca kiroldegia, Donostia.

### PARTIZIPAZIOKO KADETEAK

#### Ekintza - Ostadar SKT

Larunbata. 09:30. Santo Tomas Lizeoa, Donostia.

### ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

#### Also - Kebab Taberna

Ostirala. 19:45. Kirolgunea.

#### Aita Amari - Txoko

Ostirala. 20:45. Kirolgunea.

#### Kattagorri Insausti - Izkiña

Larunbata. 10:30. Kirolgunea.

#### Ilargi - Indaux

Larunbata. 11:30. Kirolgunea.

#### Urdaneta H.K. - Trumoi

Larunbata. 12:30. Kirolgunea.

### 3. NAZIONAL MAILA

#### Ostadar Antonio Aroztegia - Zalditxo de Araia

Larunbata. 18:00. Udal Kiroldegia.

### FUTBOLA

KADETEEN OHOREZKO MAILA

#### Ostadar SKT - Vasconia CD

Larunbata. 12:30. Michelin.

INFANTILEN OHOREZKO KOPA

#### Añorga KKE - Ostadar SKT

Igandea. 10:00. Rezola, Donostia.

### EMAKUMEEN IGOERA FASEA

#### Touring KE - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Fanderia, Errenteria.

### ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

#### Martutene KE - Ostadar SKT

Larunbata. 15:45. Martutene, Donostia.

### JUBENILEN OHOREZKO MAILA

#### Ostadar SKT - Sporting Herrera

Larunbata. 17:15. Michelin.

### JUBENILEN 1GO MAILA, IGOERA FASEA

#### Burumendi FG - Ostadar SKT

Igandea. 16:30. San Miguel, Mutriku.

### IGERIKETA

#### INFANTILAK

#### Buruntzaldea IKTKo igerilari Nahia

Jie Villamediana, Paula Sevillano, Ainhoa Martin eta Leire Martin

### infantilak Gipuzkoako taldearekin

#### aritutako dira 'Les 27emes Nautiques

#### de Tarbes' lehiaketan aritutako dira.

Larunbata eta igandea. Tarbes

### KZL/ALEBINEN LIGA

#### KZL eta TEST-en 5. jardunaldia eta alebin ligako 7.a jokatu dituzte alebin eta benjaminen.

Larunbata. 15:30. Majori kiroldegia, Ordizia.

### PILOTA

#### ALEBINAK

#### Oiarpe - Intza 1

Ostirala. 19:15. Michelin pilotalekua.

#### Mundarro - Intza 2

Ostirala. 19:30. Astigarragako pilotalekua.

### GIPUZKOAKO LAU T'ERDIKO

#### TXAPELKETA

#### Solano (Intza) - Zabala (Intxurre)

Ostirala. 21:15. Michelin pilotalekua.

#### Iruretagoiena (Intza) - Irazustabarrena (Mundarro)

Larunbata. 11:00. Michelin pilotalekua.

### BURUZ BURUKO PROMOZIO TXAPELKETA, FINALERDIAK

#### Arteaga II - Peña II

Larunbata. 17:45. Beotibar, Tolosa.

### TXIRRINDULARITZA

#### INFANTILAK, KADETEAK ETA JUNIORRAK

Buruntzaldea Txirrindularitza eskolako txirrindulari infantilak, kadeteak eta juniorrak Irunen, Lizarran eta Lazkaon lehiatuko dira, hurrenez hurren.

Larunbata eta igandea. Goizean. Irun, Lizarra eta Lazkao

# Urte bikainari amestutako amaiera ezin eman

La Vilaren kontrako kanporaketa galdu du Rekondo anaien, Xabi Prietoren eta David Vegaren Babyauto Zarautzek. Ondorioz, Ohorezko Mailara igotzeko aukerarik gabe geratu dira errugbilari lasarteoriatarak

## Martin Vicioso

Aurten ere ametsa egi bihurtzearen atarian geratu dira Babyauto Zarautz taldean jokatzeko duten lasarteoriatarak.

Kanporaketa asko zaildu zitzaizen Alacanteko La Vila taldearen kontra etxean 22-34 galdu ondoren.

Villajoyosa herrira abiatu eta 12 puntuko aldeari buelta eman behar zion talde gipuzkoarrak, baina motz geratu ziren. Alacantarrak berriro ere nagusi izan ziren, eta 32-21 garaitu zuten Babyauto Zarautz.

## Amore eman gabe

La Vila taldea Ohorezko Mailara igotzeko faborito nagusia da, eta estatus hori baliatu zuten zelaian. 17-0eko alde eskuratu zuten hiru jokaldi bikainetan, eta aldapan gora zeukaten bidea are gehiago malkartu zitzaizen.

Hala ere, talde gipuzkoarrak ez zuen amorerik eman. Atsedendia iritsi aurretik lehenengo entseguak lortu zuten zarautzarrek, markagailuan 17-7koa ipiniz.

Indartsu atera ziren aldagelatik, eta partiduan aurretik jarri ziren, 20-21. Itxaropenak, dena den, ez zuen luzerako eman. La Vilako jokalariek garaipena nahi zuten



Zaleen babes handia jaso dute denboraldian zehar. BELTZAK RT

itzuliko partiduan ere, eta azken minutuetan egindako beste bi entseguekin 32-21ekoa jarri zuten.

## Zaleak, harro


Emozioz jarraitu zuten partidua Lasarte-Orian eta Zarautzen. Izan ere, La Vila TV katean streaming bitartez ikusi ahal izan zen, eta Beltzak RT-ren egoitza den Gure Etxea Taberna hainbat zale elkartu ziren.

Xabier Rekondo, Ander Rekondo, Xabier Prieto eta David Vega lasarteoriatarrek urte osoan

zehar egindako lana nabarmendu dute taldekide eta zaleek.

Goizeko 01:00etan iritsi ziren Babyauto Zarautzeko kideak Astira, eta bertan elkartu ziren taldeko zale ugari, dena eman duten errugbilariak agurtu eta animoak emateko.

Datorren urtean, berriro ere, saiaturko dira estatuko maila gorenera igotzen. Ez dute lan erraza izango, baina talde gaztea eta ilusioz beterikoa dute. Beraien aldetik, behintzat, 2018an dena emango dute Ohorezko Mailan izateko.



'Les 27eme Nautiques de Tarbes' froga lehiatuko dute lau taldekidek. BURUNTZALDEA IKT

## Buruntzaldea IKTko igerilariak Frantzia Gipuzkoako taldearekin

Taldeko lau kide Frantziako Tarbes hirian jokatu den txapelketan lehiatuko dira asteburuan

### Txintxarri

Buruntzaldea IKT-ko igerilari infantilek hitzordu garrantzitsua dute bihar eta etzi. Frantziako Tarbes hirian jokatu den "Les 27eme Nautiques de Tarbes" frogan hartuko dute parte lau igerilari gipuzkoako taldearen izenean.

Nahia Jie Villamediana, Paula Sevillano, Ainhoa Martin eta Leire Martin dira asteburuan lehiaketan arituko diren Buruntzaldea IKT-ko taldekideak.

Igerilari bakoitzak hiru frogatan hartuko du parte gutxienez.

Villamedianak 100 libre, 100 bizkar eta 50 tximeletan; Sevillano 800, 400, 200 eta 50 libreetan; Ainhoa Martin 100 tximeleta, 200 eta 100 bular eta 200 bizkarretan; eta Leire Martin 200 estilo eta 100 eta 50 bizkarretan. 400 estiloak edo

200 bizkarretan ere parte har dezake.

### Benjaminak eta alebinak

Bestalde, taldeko benjaminak eta alebinek Ordiziako Majori kiroldegira abiatuko dira bihar. KZL eta TEST-en bosgarren jardunaldia jokatu dute lehenek, eta alebinen ligako zazpigarrena bigarrenek.

Arratsaldean hasiko dira frogak. Txikienek 15:30etatik aurrera egingo dute jauzi igerilekura, eta alebinek 18:00etatik aurrera.

Guztira, bi kategoriak kontuan hartuta, Buruntzaldea IKTko 60 igerilari inguruk hartuko du parte bihar Ordizian jokatu diren frogetan.

Hurrengo asteburuan, berriz, Gipuzkoako eskolarteko Txapelketa jokatu dute zenbait taldekidek Tolosako Usabal kiroldegian.

## Irabaziz itxi dute denboraldia kadete mailako bi taldeek

Partizipazio zein Errendimendu mailako Ostadar taldeek sasoi bikaina egin dute aurten.

### Txintxarri

Ostadar SKTko saskibaloia alorreko arduradunak lasai egon daitezke, harrobiko taldeak astero ari direlako erakusten etorkizuna badagoela herrian. Partizipazio eta Errendimendu kadete mailako

bi taldeek joan den asteburuan itxi zuten denboraldia, modu ezin hobean: irabaztea lortu zuten biek, Maialen Chourraut Udal Kiroldegian jokatuak norguehiagoketan. Partizipazio neskek jokatu zuten aurrena,

eta Oiarso baino gehiago izan ziren, hasi eta buka. Azkenean, 51-33 urdin-beltzentzat.

Ondoren Errendimendu mailako taldea atera zen kantxara. Lan zaila zuten, Easoren aurka hamasei puntuko aldeari eman behar ziotelako buelta. Eta, partidu biribila jokatu, oso gertu geratu ziren: 59-46 hartu zuten mendean Easo (joanekoan 63-47 galdu zuten). Balentria ederra egitetik oso-oso hurbil geratu zen Endika Marrahik zuzendutako taldea.



Errendimendu mailako kadeteak, artxiboko irudi batean. TXINTXARRI

# Iñigo Altuna ederki Santikutz klasikan

Grupo Eulen Jira-Bira taldeko txirrindulari lasarteoriatarrek mendiko sailkapena irabazi zuen joan den astelehenean jokaturako Espainiako Kopako lasterketan. Lehen denboraldia du afizionatu mailan, eta ederki ari da moldatzen.

## Txintxarri

Ezin hobeto ospatu du Iñigo Altuna txirrindulariak bere 19. urtebetetzea. Igandean itzali zituen kandelak, eta mendiko sailkapena irabazteagatik mailot berdea jantzi hurrengo egunean, Espainiako Kopako probetako bat den Santikutz klasikan. Lasarteoriatar gaztea aurten ari da estreinako afizionatuen mailan, eta ederki ari da moldatzen. Astelehenean egindakoa da horren erakusgarri.

Emozioz beterikoa izan zen 151 kilometro luze zituen lasterketa. Deskargako igoeran hautsi zen 40 partaide inguruko tropela. Hamar txirrindularik osatu zuten ihesaldia: Mauricio Orozco, Elias Tello, Eduardo Llacer, Oscar Cabedo, Alvaro Cuadros, Diego Noriega, Eusebio Pascual, Anderson Maldonado, Lopez Cozar eta Sergio Samitierrek. Azken horrek poltsikoratu zuen garaipena.

Deskarga jaitsi ostean, hamar txirrindularietako bakar batek ere ezin izan zituen gainontzekoak atzean utzi, eta sprintean erabaki zen dena. Esan bezala, Sergio Samitier (Lizarte) izan zen bizkorrena. Elias Tellok (Kuota Paulino) eta Alvaro Cuadrosek (Caja Rural-Seguros RGA) osatu



Iñigo Altunak mendiko sailkapena irabazi zuen 84. Santikutz klasikan. IÑIGO ALTUNA

zuten podiuma. Iñigo Altuna ere igo zen podiumeko koska gorenera, mendiko sailkapena irabazteagatik mailot berdea janztera.

## Debuta afizionatu mailan

Iazko denboraldia bukatu arte Buruntzazpi taldearekin ederki aritu eta gero, Grupo Eulen Jira-Bira taldearen koloreak jantzi eta afizionatu mailara egin du jauzi Iñigo Altunak. Entrenamenduz entrenamendu, kilometroz kilometro, txirrindulari gisa formatzen

jarraitzea du xede herritarrak, eta, zergatik ez, egunen batean pelotoi profesionaleko kide izan.

Bizikleta ikasketekin uztartzen du Altunak: Ingeniaritza Mekanikoa ari da ikasten, Mondragon Unibertsitatean. 11-12 urterekin ekin zion pedalei eragiteari, eta gaur arte. Pedalkadaz pedalkada, kategoria eta talde berrira ederki egokitu dela erakutsi du beste behin. Datozen probetan erakutsitako maila mantentzea du helburu.

## Bi jardunaldiren faltan, lider jarraitzen du Ostadar SKTk

Ohorezko Jubenil mailako taldea hatz mamiekin ukitzen ari da Euskal Ligara igotzeko finala jokatzeko aukera.

## Txintxarri

Jardunaldi bat gutxiago, eta hiru puntu gehiago poltsikoan. Ohorezko Jubenil mailan ari den Ostadar SKTk gero eta gertuago dauka Euskal Ligara igotzeko finala jokatzeko aukera.

Bi jardunaldi besterik ez dira falta liga bukatzeko, eta Javi Solchagak zuzentzen duen taldeak lider izaten jarraitzen du, 69 punturekin. Dunboa Eguzki da urdin-beltzen erritmoari eusten dion bakarra, eta hiru puntura

dago. Irundarrek daukate irabazita gol-aldea: 2-0 galdu zuten Michelinen, baina euren zelaian 4-1 irabazi. Ostadarrek seitik lau puntu lortu behar ditu matematikoki lidertza bermatzeko.

Lehenengo multzoan lehenengo geratuz gero, bigarren multzoko aurreneko sailkatu Ordiziarekin neurtuko litzuzke indarrak herriko taldeak, partidu bakarrera, futbol-zelai neutral batean. Partidu hori irabazten duenak jokatu du 17-18 denboraldian Euskal Ligan.



Bar Kafe Buenetxeak denboraldi ederra egin du aurten. OSTADAR ARETO FUTBOLA

## Jubenil mailako bi taldeek ezin izan dute aurrera egin

3. Nazional mailako Ostadar Antonio Aroztegiak 4-1 galdu zuen Sasikoa Durango taldearen aurka.

## Txintxarri

Ligan maila bikaina erakutsi eta gero, final laurdenak jokatzeko sailkatu ziren gure herria Gipuzkoako kantxetan ordezkatzen ari diren jubenil kategoriako bi taldeak. Joan den asteburuan saiatu ziren finalerdietarako pasea lortzen, baina galdu egin zuten biek.

Bar Kafe Buenetxeak Teep Samaniego Orixerekin neurtu zituen indarrak, Tolosan. Urdin-beltzek ezin izan zuten euren joko egin eta 6-0 galdu zuten. Bar Kafe Lasartek, aldiz, eskura eduki zuen hurrengo faserako

txartela, baina ihes egin zion azkenean, Summa Aldapetaren aurka 4-3 galduta. Dena den, bi emaitza horiek ez dute itzalpean uzten gazteek aurten egindako lan bikaina.

## Jardunaldiko emaitzak

Senior kategoriako taldeek ere jokatu zuten joan den asteburuan. Hauek dira emaitzak: Sasikoa Durango 4-1 Ostadar Antonio Aroztegia (3. Maila); Jaixki AFT 7-6 ISU Leihoak eta Cecilia Keab Lasarte Ostadar 8-3 Power Rangers (Gipuzkoako 1go maila). Azken biek liga bukatu dute.




TXINTXARRI

## EHko Itzuliko porrako sarituak

Ostadar SKTk Euskal Herriko Itzuliko txirrindularitza porrako sariak banatu zituen joan den ostiralean, Ainhoa tabernan. 'Gontzal Motor' txartelak irabazi du 360 euroko 1go saria. Puntu gehien bildu dituen taberna, berriz, Genesis izan da: 9.678 puntu denera. Bestalde, Italiako Giroko zerrendak eta boletoak ohiko tabernetan eskura daitezke jada.

## ZORION AGURRAK



**Koan**  
Nire pintzipe politari bere 8. urtebetetzean Zorionak! Maite zaitut muxu!!



**Maialen**  
Zorionak printsesa! 3 muxu goxo familiaren partetik.



**Irati**  
Zorionak saltsera! Jauaryu?! Eguna jarri txin-txin egiteko eta bide batez, ea AEB-tik zein tramankulu berri dakarkizun kuadrillako argazkia ateratzeko!!



**Elene**  
Zorionak maitia!! Izugarri maite zaitugu familiakook. 7 muxutxo denon partetik.



**Ekaitz**  
Zoooorriionak etxeko xomorritoari! Oso-osonondo pasa dezazula opa dizugu bihotza. Parranda handia egingo dugu. Amaiur, aitatxo eta amatxo. Sei muxu potolo zuretzat.

## SUDOKUA

		5					4	8
9		3	8	6	5	7	2	
2		1	3		7	6		
5		6	7	9		8		
	1		6		8			7
7			5		4		6	2
	5	2		8	6	9		3
1		7	2	5		4	8	6

## GUTUNAK

## Noizko banku okerrenak?

## ANTONIA ADAN ETA BESTE BIZILAGUN BATZUK

Orain dela urte asko, Lasarte-Oriako Hipodromo etorbidean, udalak banku batzuk berriitu zituen. Baina beti jenderik gabe daude. Normala da, inor ez da ausartzen osasunerako kaltegarriak diren banku publiko hoietan eseritzen.

Konkretuki, bizkarrerako arriskutsua da metalezko barra batean deskantsatzea. Oraindik ez gara "gimnasta olinpikoak" edo "striperrak" asmakizun hori erabiltzeko. Beste aldetik, ipurdiak karratu edo "código de barras" bat bezala amaitzen du. Kontuan edukitzekoa ere da zurezko "kartzela" hontan zikinkeriak p i l a t z e n d i r e l a . Munduko banku publiko

okerrenaren saria merezi dute. Baina lasarte-orientarrak ez dugu zigor hau merezi.

Txintxarritik udalari eskatzen diogu "tortura" honekin amaitzea eta banku dexente bezala berritzea. Gaur egungo bankuen estruktura aprobetxatzea ez zen hain garestia izango, ez da beharrezkoa izango beste motako bankuei kreditu bat eskatzea, denoi hobekuntza egiteko.



## Erraustegiaren lanak hastear direla eta, astelehenean KONTZENTRAZIO ZARATATSUA Okendon

## AIRE GARBIA

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak herritarrei dei egiten die parte hartzera datorren astelehenean, maiatzak 8, 19:00etan, Okendon egingo den KONTZENTRAZIO ZARATATSUAN.

Izan ere, maiatzaren 8an hasiko omen dira ofizialki Zubietako erraustegia eraikitze lanak. Hori dela eta, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak protesta-ekintzak antolatu ditu Gipuzkoa osoan, eta Aire Garbiak ekimen honekin bat egin nahi izan du kontzentrazio zaratatsuaekin. Beraz, herritarrei

dei egiten die Okendora joateko lapiko, lata, paera, txilibito, danbor eta zarata atera dezakeen edozer tresna eramanda.

Halaber, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eta Aire Garbiak berak datozen egunetan egingo diren beste mobilizazioei adi egoteko abisatu nahi dute. Esaterako, badirudi maiatzaren 10ean foru agintariak "lehen" harria jarri nahi dutela (berez, bigarrena, lehenengoa aspalditxo jarri baitzuten, alferrik jarri ere). Eta albiste hori konfirmatzen bada, oso litkeena da egun horretan ere protesta adierazteko ekimenen bat antolatzea.

Gainera, maiatzaren 27an, erraustegiaren aurkako egunpasa izango da Zubietan bertan, hitzaldi, bazkari, tailer, musika eta beste hainbat osagairekin.

## Gure etorkizuna erabakitzeari bai! M-7an langileok ere bozkatzera!

## MAIDER IZAGIRRE TXOPERENA

Azken urteetan, tamalez, Euskal Herrian lanaren eta bizitza beraren prekarizazioa nagusitzen joan da. Erreforma basati eta murrizketen bidetik, lan harremanak erasotzeaz gain, soldata geroz eta murriztagoak ezarri dizkigute, emakumeon zaintza lanak aitortu gabe jarraitzen du, lan munduan bigarren mailako lanak egitera behartuta gaude, pentsioak arriskuan jarri dizkigute, bizitza duin bat izateko eskubidea uneoro urratzen digute... Beste askoren artean aipa genitzakeen adibide garbiak dira hauek.

Egoera honen aurrean, erabakitze eskubidea geroz eta

beharrezkoagoa dugu, egoera laboral eta soziala irauli ahal izateko. Oinarri berriak dituen jendarte eredu askea eraikitzen hasi behar dugu gaurdanik. Langileok aukera paregabea dugu geure hitza eta erabakia aditzera emateko Lasarte-Orian zein beste 49 herrietan, maiatzaren 7an antolatu diren galdekietan.

Eta zertarako erabaki? Gure etorkizunaren jabe izateko, jendarte eredu berria eraikitze, herri askea posible egiteko, egoera ekonomiko eta soziala iraultzeko, geure erabakien protagonista bilakatzeko, zapalkuntza oro gainditzeko... Zapalkuntza hirukoitza bizi dugula esanenezake: patriarkala, soziala eta nazionala. Gaur egun, gure errealitate eta beharren arabera erabaki politiko, ekonomiko eta

sozialak beste batzuen esku daude, eta honek herri bezala ahuldu egiten gaitu. Beraz, maiatzaren 7an ERABAKI DEZAGUN, izan gaitzen gure etorkizunaren jabe, herri askea eta burujabea GURE ESKU DAGOELAKO!

## AZOKA TXIKIA

### 1. ETXEBIZITZA

#### 102. ALOKAIUAN EMAN

Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649526766

Bi plazako garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalena. 686674552

Etxea alokatzen da Oztaran plazan. 653712793

### 2. LANA

#### 202. ESKAERA

Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Larunbatean 14:00tik aurrera eta igande egun osoz. 622 733 606

Mutila eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko, baita eraikuntza aritzeko ere. 655385563

### 402. EMAN

Euskarazko eta ingelesezko klase partikularak ematen ditut kopuru ekonomikoan. 600766868

### 403. JASO

Euskara klaseak jasotzeko nahiko nituzke irakasle partikularrekin. Brenda. 693 299 302

### 3. BESTELAKOAK


#### 101. SALDU

Mendiko bizikleta salgai. Karbonozko koadroa. Crosmax ST gurpilak. Rock Shock Sid XX urkilak eta SLX, LT osagaiak. 605 763 341

#### 102. EROSI

8-10 urteko sorgin dantzako blusa baten bila nabil. 670822802

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

\*Eskola egunetan

## HILDAKOAK

Angela Villan Fonturbel. Apirilaren 28an, 79 urte.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 5	ORUE
Larunbata, 6	ACHA-ORBEA
Igandea, 7	ACHA-ORBEA
Astelehena, 8	DE MIGUEL
Asteartea, 9	LASA
Asteazkena, 10	GIL
Osteguna, 11	ACHA-ORBEA

### EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
 EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
 KIROLDEGIA: 943 376 182  
 MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
 GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
 KIUB: 943 361 605  
 UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
 MUNTTERI AEK: 943 372 863

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
 DYA: 943 464 622  
 GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
 UDALTZAINAK: 943 362 442  
 ERTZAINZA: 943 288 888  
 SOS DEIAK: 112

## ESKELAK

### ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 20160 LASARTE-ORIA  
 G-20407557

### Erredakzioa

Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,  
 Martin Vicioso, Lorena Lujanbio

### Publizitatea

Aranxi Zulaika.

### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
 Ane Labaka, Mailu Arruti,  
 Asier Odriozola, Maider Segurola,  
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
 Edu Galardi.

### Informatikoa

Xabier Amadoz.

### Administraria

Nerea Garciarrena

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua:

SS-513/94  
 ISSN: 1134-0053  
 Tirada: 7.800 ale

BABESLEA

LAGUNTZAILAK



LASARTE-ORIA  
 1134 0053



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 5

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
Itzatu Antzerki taldeak "Abuelas a la fuga" antzezlan aurkeztuko du. Egoera konprometitu bat azalduko dute hiru familia ezberdinen ikuspuntutik. Sarrera: 3 euro  
*Manuel Lekuona, 19:30ean.*

## LARUNBATA 6

**LASARTE-ORIA Bertsolaritza**  
"Soinuaren errimak dantzan" bertso saio berezia eskainiko dute Andoni Egañak, Ane Labakak eta Maialen Lujanbiok, Earra! Bertso Eskolak eta Ttakun Kultur Elkarrekin antolatuta. Dantzarien eta trikitilarien parte hartzeak apainduko du saioa. Sarrera: 4,50 euro  
*Manuel Lekuona, 22:00etan.*

**ASTIGARRAGA Gastronomia**  
VI. Iarren eguna ospatuko dute. Baratzak ikusi, ilarrak dastatu, hazien pribatizazioari buruzko tailerrak egin eta ilar-menua dastatzeko aukera egongo da. *Udaletxea, 11:00etan.*

## IGANDEA 7

**LASARTE-ORIA Erromeria**  
Urtero bezala, erromeria egongo dute Azkorteke ermitan. Meza, herri kirolak eta trikitilariak egongo dira, besteak beste. Autobusak Biyak Bat-etik aterako dira 09:00etatik aurrera. *Azkorteke ermita, 11:00etan.*

**LASARTE-ORIA Festa**  
Gure Esku Dago herri mugimenduak bultzatuta, eta galdeketa parte hartzeko gonbita zabalduz, egun osoko egitaraua prestatu dute. Dantza, pintxo-potea, herri bazkaria, bertsolariak eta musika egongo dira, besteak beste. *Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.*

## ASTELEHENA 8



**LASARTE-ORIA Festa.**  
Gure Esku Dago bultzatutako galdeketa parte hartzeraz deituz, Loratu taldeak egun osoko egitaraua prestatu du mota guztietako ekintzekin. Musika, kirola, bertsolariak eta beste hainbat egitasmo pentsatu dituzte. *Igandea 7, Okendo plaza, 11:00etan*

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**  
Danok Kide gurasoen elkarrekin antolatuta, 'Balioetan hezi XIV. jardunaldiak egingo dira'. Aurten nerabeen arriskuak eta haiekin elkarbizitza landuko dituzte. "Eskola jazarpena" eta "seme alaben parke birtuala" izango dituzte mintzagai Goizalde Pildainen eta Nilson Olivaresen eskutik. *Manuel Lekuona, 19:30ean.*

**LASARTE-ORIA Elkarretaratzea**  
Erraustegia eraikitzeke lanen hasiera dela eta, elkarretaratzea deitu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Deia luzatu dute zarata ateratzeko gailuekin gerturatzeko. *Okendo plaza 19:00tan.*

## ASTEARTEA 9

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**  
Danok Kide gurasoen elkarrekin antolatuta, 'Balioetan hezi XIV. jardunaldiak egingo dira'. Aurten nerabeen arriskuak eta haiekin elkarbizitza landuko dituzte. "Mugikorraren eta sare sozialen erabilera desegokia" izango dute mintzagai, EHUKo irakasle eta psikologo Patricia Insuaren eskutik. *Manuel Lekuona, 19:30ean.*

**ZUBIETA Hitzaldia**  
Elena Jimenez sexologoak haurren sexualitateari buruzko formazioa emango du, Zubietako Herri Eskolako Ikasleen Guraso Elkarrekin antolatuta. *Kaxkape, 14:30ean.*

## ASTEAZKENA 10

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**  
Danok Kide gurasoen elkarrekin antolatuta, 'Balioetan hezi XIV. jardunaldiak egingo dira'. Aurten nerabeen arriskuak eta haiekin elkarbizitza landuko dituzte. "Alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa aisialdian" izango dute mintzagai, Patricia Insuaren eskutik. *Manuel Lekuona, 19:30ean.*

## OSTEGUNA 11

**LASARTE-ORIA Jardunaldiak**  
Udaltop Udalen euskara zerbitzuen topaketari hasiera emango zaio. Aurten hizkuntza ohiturak izango dituzte aztergai, "Aterako gara euskal herritarrok hizkuntzaren armairutik?" izenburupean. Egun osoko egitaraua prestatu dute ostegun eta ostiralerako. *Manuel Lekuona, 09:00tan.*

## ZINEMA

<b>LASARTE-ORIA</b>	<b>El Bebé Jefazo</b> Ostirala: 16:00, 17:15, 18:10, 19:30, 20:20. Larunbata: 16:00, 17:15, 18:10, 19:30, 20:20. Igandea: 16:00, 17:15, 18:10, 19:30, 20:20.	Igandea: 16:15, 19:00, 21:45.	18:10, 20:15, 22:20, 00:30. Larunbata: 15:45, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30. Igandea: 15:45, 18:10, 20:15, 22:30.
<b>MANUEL LEKUONA</b>	<b>Moonlight</b> Ostirala: 22:00 (jb) Igandea: 19:30.	<b>Guardianes de la galaxia vol. 2</b> Ostirala: 16:00, 18:00, 18:50, 20:05, 21:45, 22:45, 00:40. Larunbata: 16:00, 18:00, 18:50, 20:05, 21:45, 22:45, 00:40.	<b>Plan de fuga</b> Ostirala: 15:45, 18:00, 22:30, 00:45. Larunbata: 15:45, 18:00, 22:30, 00:45. Igandea: 15:45, 18:00, 22:30.
<b>La bella y la bestia</b> Igandea: 17:00.	<b>El Bebe Jefazo</b> Larunbata: 17:00, Igandea: 17:00.	<b>La bella y la bestia</b> Ostirala: 21:45, 00:25. Larunbata: 21:45, 00:25. Igandea: 21:45.	<b>Un italiano en Noruega</b> Ostirala: 16:05, 20:50, 22:45, 00:50. Larunbata: 16:05, 20:50, 22:45, 00:50. Igandea: 16:05, 20:50, 22:45.
<b>ANDOAIN</b>	<b>El Circulo</b> Ostirala: 15:50, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50. Larunbata: 15:50, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50. Igandea: 15:50, 17:50, 20:10, 22:30.	<b>Fast &amp; Furious 8</b> Ostirala: 16:15, 19:00, 21:45, 00:35. Larunbata: 16:15, 19:00, 21:45, 00:35.	
<b>BASTERO</b>	<b>Lady Macbeth</b> Larunbata: 19:30, 22:00. Igandea: 19:30, 22:00.	<b>USURBIL</b>	
<b>URBIL</b>			



## LABURPENA

**Moonlight**  
**Zuz.:** Barry Jenkins. **Herr.:** AEB (2016). **Gidoia:** Barry Jenkins (Tarell McCraney-ren istoriotik). **Aktoreak:** Trevante Rhodes, Naomie Harris, Mahershala Ali, Ashton Sanders. **Iraupena:** 111 minutu.

## Eskola indarkeriari aurre eginez

Haurtzaro eta nerabezaro konplikatuak izan dituen gazte afroamerikarra da Chiron (Trevante Rhodes). Miami-ko gune gatazkatsu batean bizi da, eta urteak pasa ahala bere burua ezagutzen joaten da, egoera zail asko gaindituz. Chironek amaren droga-menpekotasunari eta auzoko eta eskolako giro bortitzari aurre egin beharko die.

Iritzi bikainak jaso ditu filmak. Zirkuito independentean sari andana jaso ondoren, aurtengo sariketa nagusien protagonista izan da

Moonlight. Akademiako Sarietan hiru lorpen garrantzitsu eskuratu zituen: Film onenari, moldatutako gidoi onenari eta gizonezko bigarren mailako aktore onenari (Mahershala Ali-ri) emandakoak. Urrezko Globo Sarietan ere film onena izendatu zuten, beste hamar nominazio jasotzeaz gain.

Barry Jenkins-en bigarren film luzea da 'Moonlight'. Aurretik, 'Medicine for Melancholy' independentean zuzendu zuen. Netflix kateko 'Dear White People' telesailko atal baten zuzendari ere bada.

# LASARTE - ORIA

## 2017.Ko UDABERRI FESTA

MAIATZAK 12 OSTIRALA

• 17:30-20:30: PUZGARRIAK Juan XXIII plazan, Zumaburuko eliza plazan eta Urko plazan (Euria egiten badu Loidibarren frontoian jarriko dira)

• AMAIA GONZALEZ CABALLEROK DANTZA EGITEN IRAKATSIKO DIZU JAIZKIBEL PLAZAN. 16:30ean Funky umeentzat eta 19:00etan adinekoentzat dantza latinoak

• 19:00-20:30: TXARANGA GAUTXORIREN KALEJIRA

*Bisita itzazu marrazki lehiaketan parte hartu duten komertzioak*



## EUSKARAZ BIZITZEKO HURRENGO URRATSA

ERRENTA  
AITORPENA  
EUSKARAZ

APIRILAREN 6TIK  
AUTOLIKIDAZIOA  
ONARTZERA KOAN,  
SAKATU  
EUSKAREN  
AUKERA

Informazio gehiago:  
<http://euskara.buruntzaldea.eus>  
f Albistea elkarbanatu eta opariak  
eskuratu!  
Andoain / Astigarraga / Hernani /  
Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil  
UDAL EUSKARA BATZORDEAK



**ORIENTE** Institutua  
LASARTE-ORIA Bigarren Hezkuntza



LANDABERRI ERAIKINA  
1. eta 2. DBH



LARREKOETXE ERAIKINA  
3. eta 4. DBH | BATXILERRA



2017-2018 IKASTURTEA  
ONARPENA BATXILERGOA

Ikastetxean eskaerak:  
2017ko maiatzaren 2tik 12ra arte  
On-line:  
2017ko maiatzaren 2tik 11ra arte